

**GAIA: 2016ko ABENDUAREN 28ko AGINDUA: ETXEBIZITZA ETA ERAIKINAK ERA EFIZIENTEAN BIRGAITZEKO RENOVE PROGRAMAREN 2017ko DEIALDIA.**

Gutun honen bidez, eta etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzean zure partaidetza aktiboa kontuan hartuz, jakinarazi nahi dizugu 2016ko abenduaren 30etik indarrean dagoela 2016ko abenduak 28ko Agindua, **etxebizitzak eta eraikinak era efizientean birgaitzeko Renove Programaren 2017eko deialdia** arautzen duena:

1. Xedea
2. Jarduketak
3. Kudeaketa
4. Diru-laguntzen zenbatekoa
5. Diru-laguntzen bateragarritasuna

#### 1.- Xedea:

Hiri-lurzoruan etxebizitzak birgaitzeko Renove Programaren diru-laguntzei buruzko 2017ko deialdia, esku hartzeko proiektuak egin eta horien ondoriozko obrak gauzatzeko. Laguntza hauek eraikin mota hauetan egiteko ekintzetara bideratuak daude: etxebizitza-erabilera nagusia izanik, eraikuntza-etxadiak osatuz taldekatuta daudenak, gutxienez horren alde bat barnean hartzen dutelarik; 1980a baino lehenagoko eraikitze-data dutenak eta hiri- eta egitura-egokitzapena duten eraikinak.

#### 2. Jarduketak: hurrengo jarduketa guztiak bilduko ditu:

- a) **Energia-eraginkortasuna:** eraikinaren portaera energetikoa hobetuko du, gutxienez C energia-ziurtagiria lortzeko, hurrengoetan eraginez:
  - Eraikinaren ingurutzailan berokuntzarako urteko energia-eskaria gutxienez %30 murriztuz.
  - Eraikineko sistema eta instalazioak berriztagarria ez den lehen mailako eraikineko energiaren kontsumoa % 30 murrizteko.
- b) **Irisgarritasuna:** bide publikotik etxebizitza bakoitzera sartzeko aukera bermatuz, gainditu beharreko mailarik izan gabe. Igozailua jartzeak lehentasuna dauka.
- c) **Sute segurtasuna:** eraikinak larrialdi-argiztapena, seinaleztapena, sute-detekzioa eta -iraungitzea eta okupatzaileentzako alarma-transmisioa izango ditu.
- d) **Bizigarritasuna:** eraikitako perimetroaren handitzea suposatzen duten jarduketak.
- e) **Monitorizazioa:** barneko konfort termikoa eta berokuntzaren energia-kontsumoa neurtzeko. Gutxienez etxebizitzaren %20a monitorizatuko dira, Eusko Jaurlaritzaren irizpideen baitan zeintzuk diren zehaztuko direnak.

Higiezinaren egungo egoerak ez badu eskatzen hauetako esparrutan jardutea baldintzak bermatuta daudelako, ez da bertan jardutea beharrezkoa izango. Dena dela, aurkeztutako dokumentazioan baldintzak betetzen direla frogatu beharko da. Jardunen bat egitea ezinezkoa gertatzen bada, aurkeztutako dokumentazioan zehatz-mehatz justifikatu beharko da hori.

### 3.- Kudeaketa:

Jabeen erkidegoen ordezkariak aurkeztu beharko dituzte eskaerak 2016/12/31 egunetik 3 hilabete osatu baino lehen.

Erabakitakoa 2017/07/01a baino lehen jakinaraziko da eta jarduketak 2020/07/31rako bukatuak beharko dute, 2020/12/30rarte luzatzeko aukerarekin.

### 4.- Diru-laguntzen zenbatekoa:

Txostenak ziurtagiriak eta proiektuak idazteko ordainsarien kostu garbiaren %60a emango da.

Obrak gauzatzeko jardunen kontrata-aurrekontuaren %50a emango da gehienez.

Aurreko ehunekoen baturaren diru-laguntzen muga jarduketak barnean hartutako etxebizitzaren kopurua 15.000 euroekin biderkatuz zehaztutako kopurua izango du.

### 5.- Diru-laguntzen bateragarritasuna:

Diru-laguntza hauek bestelakoekin bateragarriak izango dira, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak jabeen erkidegoen alde eman ditzaketenekin izan ezik.

Diru-sarreraren arabera saila honek ematen dituen banakako laguntzekin bateragarriak izango dira.

Laguntza guztien zenbatekoak ezin izango du gainditu jardunen kostua.

Argibideren bat behar izanez gero, **943 344 160** zenbakira hots egin, posta elektronikoz idatzi [xsanchez@oarsoaldea.eus](mailto:xsanchez@oarsoaldea.eus) helbidera edo [www.oarsoaldea.eus](http://www.oarsoaldea.eus) [web orria bisitatu](#).

Besterik gabe,

Agur bero bat,



Xabier Sanchez

Hiri-berriztapen eta Mugikortasun Sailaren Zuzendaria

**Oarsoaldea**